

## HARREMANEN, KUDEAKETAREN ETA ANTOLAKETAREN EREMUA

ZEIN EGOERATAN GAUDE? ZER EGITEN DUGU?	ZER HOBETU DEZAKEGU?	LEHENTASUNA
<p>Ikasle gehienentzat ikastetxea da euskaraz jarduteko eta euskarazko komunikazio-gaitasuna garatzeko gune nagusia. Ikasleek erabilera-egoera asko, askotarikoak eta gero eta konplexuagoak behar dituzte beren komunikazio-gaitasuna garatu ahal izateko.</p> <p>Gure ikasleek, beren ohiko ingurunean eta ikastetxean, badituzte gaztelaniaz aritzeko egoera esanguratsu ugari eta era askotakoak; horrela gaztelaniazko komunikazio-gaitasunaren garapen egokia bermatua dute.</p>	<p>Areagotu ikasleei euskara erabiltzeko aukera ematen dieten egoerak ikastetxean, bai ikasgela barnean baita ikasgelaz kanpo ere. Eta horretarako, euskaraz aritzeko aukera ugari eskaini ikasleei, eta egoera horietan ikasleen parte-hartze aktiboa lagundu eta dinamizatu.</p>	1
	<p>Ikastetxe barneko harreman-esparru eta -forotan euskararen presentzia eta erabilera sustatu, ikasleek antzeman dezaten euskara dela ikastetxeko ohiko harreman-hizkuntza.</p>	2
<p>Zenbait ikaslek “beste hizkuntza bat” dute H1. Familia-giroan horri eustekak eta H1 horren garapen egokia lortzeak lagunduko die eskolako hizkuntzetan ere komunikazio-gaitasun maila egokia garatzen.</p>	<p>Zenbait ikaslek H1 duten “beste hizkuntza” horiei presentzia eman ikastetxeko gune eta jarduera batzuetan, eta horiekiko interesa eta onarpena erakutsi.</p>	2
	<p>Ikasle horiek beren H1 etxeko eta inguru hurbileko giroan balia dezaten sustatu. Erabilera horren garrantzia familiekin konpartitu.</p>	2
<p>Orduz kanpoko jardueretan eta aisialdiko beste zenbait gune eta jardueretan ikasleek badituzte euskaraz aritzeko aukera askotxo. Horrelako jardueretan parte hartzeak lagunduko die beren komunikazio-gaitasuna garatzen, eta, gainera, haien gizarte-integratiorako aukerak hobetuko ditu.</p> <p>Parte-hartze horri onura handia atera ziezaiokeen zenbait ikaslek parte hartzea eragozten dizkieten oztopoak aurkitzen dituzte.</p>	<p>Ikasleekin eta haien familiekin konpartitu orduz kanpoko eta aisialdiko jardueretan euskaraz aritzearen garrantzia. Batez ere horrelako jardueren balioa antzematen ez dutenekin eta parte hartzeko oztopoak aurkitzen dituztenekin.</p>	1
	<p>Kuotak-eta ikasleen parte-hartzerako oztopo izan ez daitezen bideak urratu.</p>	2
<p>Irakasleok badugu, oro har, gaitasun nahikoa gure irakaslan euskaraz garatu ahal izateko. Talde zabal batek ahozko ekoizpen formalak hobetzeko nahia adierazi du.</p> <p>Arloren bat ingelesez eman ahal izateko, zenbait irakaslek ingelesezko komunikazio-gaitasuna hobetu beharko luketela egiaztatu dugu.</p> <p>Irakasle gehienek, arlo linguistikoak ematen dituztenek ez ezik arlo ez linguistikoak ematen dutenek ere, beren arloetan hizkuntza-komunikatiorako gaitasuna hobeto lantzeko prestakuntzan sakontzeko asmoa agertu du.</p>	<p>Irakasle on hizkuntza-prestakuntzarako plana prestatu eta gauzatu, eta horren bidez antzemandako beharrei eta nahiei erantzun.</p> <p>Txertatu aipatu plan hori ikastetxearen hobekuntza-planaren zein prestakuntza-planaren barnean.</p>	1